

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ.  
64n. ZENBAKIA  
JORRAILLA  
(APRILLA)

STERIO DE CULTURA

DELEG

OVINCIAL DE Vizcaya

Únimos

las 11.20 hora:

de 19

El Delegado Provincial,

onforme:

*Amorós*



**BASERRIA  
EUSKALTASUNAREN ITURRIA**



# “NIGARREZ SORTU NINTZAN”

Mariano Izataren azken-elaberriaz berba egiterakoan, au da, «Nigarrez sortu nintzan» izeneko liburuaz, bizkaitarrontzako bereziki, euskalki desberdinetako liburuaren irakurketa euskeraren batasunerako zein garrantzitsua dan argi eta garbi ikusten da.

\* \* \*

Izan be, noizean bein agertzen jakuzan liburu nafartar oneik, euskera nafartarra ikasteko eta irakurtzeko oitasuna gudan sortera-zoten dabe.

Beraz, liburu onen azterketa bikoitza izan daiteke: alde batetik, izkuntzaren ikuspegitik eta bestetik elaberriaren literaturazko balioaren aldetik.

Lelengo saillari dagokionez, Izetaren euskera nafarra da, ain zuzen be, Baztango errialdean erabiltzen dana eta bere berezitasun guztiekaz agertzen jaku. Egia esanda euskera onek, kasu askotan, gure Bizkai'ko euskeraz zerikusi andia dauka eta arrigarrikoko kointzidentziak ikusten doguz biotan.

Alan da guztiz be, badauka euskera onek, geografiaren aldetik beintzat, olako Iparraldeko kutsua: «erran» «norat» eta abar or dogoz.

Dana dala, gustiz aberatsa eta

zolia dan euskera erabiltzen dau idazleak, danok erraz irakurtzeko orretarikoa.

\* \* \*

Baiña onegaz ez da amaitzen emen egin nai dogun idazle baztandarraren aitortza. Bego or euskeraren aldea eta goazen orain literaturaren arlora. Arlo onetan Izeta'rem lanak euskal literaturan ezagunak doguz eta elaberriaren eremuan bereziki, «Dirua galgarri» izan da bere libururik ezagunena. Orduan elaberri poliziakoa izan zana, oraingo onetan biziaren elaberria biurtuko jaku.

Euskalerrriaren literaturan, gure ustez, elaberri au «errealismo» saillean kokatzen da. Irazusta'ren «Joanixio» liburuak asitako joeratik doaku Izetaren nobela au.

Izkera soil eta errez baten bidez, Izeta'k, Nafarroa'ren mugako baserrietako morroi umezurtz baten bizia erakusten dausku, nobelaren lau zatietan zear.

Azken batez baserriaren bizia erakusten da bere neke eta goraberak, bere bizibideak: Kontrabandoa, artzaingoa eta abar bitartean agertzen jakuzela.

Ikuspegi au betetzeko eta, Eizaguirre'ren «Ekaitzpean» elaberrian lez, gerra zibila be aitor-

tzen da eta bere ondorioz sorturiko arazoak.

Jose/Joxe larrekoa umezurtzaren bizia orrialdeetatik igarotzen da: bere umea, bere gaztaroa, maitasunaren, Frantzia'ra igesaldia eta geroko eskintza, kontrabandoa eta baserriaren lanekaz batera or dogoz.

Joxe umezurtz jaiotzen da eta umezurtz iltzen da eta azkenez, emaztea ilda eta seme-alabak lagaturik iltzen danean Miserikordian, bere biziaren borobila ixten da.

Bakiardadean jai, bakardadean il eta guzti au alkarrizketa eta bertsoen bidez euskal literaturara arrunta den teknika erabilli.

Agian alkarrizketetan datza nobelaren aultasuna, askotan nabarmena dalako bere indarrik eza.

Dana dala, nobela laburra dan aldetik, irakurleak gogoz artu ezkeror laster irakurtzen dau liburu.

\* \* \*

Eta orixe da, ain zuzen be, gure artikulutxo onen ondorioa: Mariano Izeta'ren liburu irakurtzeko guztiz gomendagarria deritzagulako eta geiago gaiñera gaurko euskal elaberriaren ikuspegi orokorra eukitzeko. Onela izan daiten irakurleak dauka azkeneko berbea.

ANDER URRUTIA

# ZER EGIN?

Euskereak aspaldion izan dauzan arazo sakon batzuk aztertu ta aztertu gabiltz eta idaz-lan au asieran itaun au datort burura: Barriro betikoa? Baiña esan-bearrean gagoz, irakurleak, idaz-lan au dana irakurten ba'dau, azkenean argi ikusiko dauan lez.

## BATUA TA ATXEA

Batua bear dala diñoe askok eta ori esan eta esan, irratitik, urrutikuskiñetik, idaztietan eta aldizkarietan, azkenean jakitun ez diran euskaldunak orretara makurtzen dira, zabalkundeak agertzen dauan OMO eroatera makurtzen diran antzera.

Baiña ezin dabe ulertu batu ori, eta orduan erdel liburuak, aldizkariak eta barri-bideak naiago dabez.

Argiago ikusten da euskereak atxerik ez dauala bear. Eta erderan be kenduko ba'lebe obeto. Baiña onetan be bardin, alde guztietan atxea ikusten da eta zabalkundearen indarra aundia da, euskera-arloan jakitun ez dan erriarentzat.

Or daukaguz ba, batua ta atxea etxean.

## OKERREKO BIDEAK

Bide oker bi orreik buru argiaz artu ba'litzaz!

Baiña ume euskaldunai, txiki-txikitatik asita, batua ta atxea sartu jakez eta euskerea gorrotatzen irakatsi jake.

Erri zeiri batua ikasi baiño lenago, izparringietan besterik ez jako eskiñi batua baiño. Eta ori ez dau iñok irakurten. Liburuak be, asko batuan eskintzen jakoz, eta erri zeiak ez dau irakurten euskeraz.

Euskalkietan be atxea sartu da, eta erriak euskerea maite izan dauan erri zeiak, iguiña artu dautso euskereari.

Eta ori da gaurko giroa, gauzea dan lez ikusi gura daunarentzat.

## INDAR AUNDIAK

Eta okerreko bide orreik indar aundia artu dabe, zelan ez? Izkuntzalari ospetsuak, Eusko Jaurlaritza, erri zeiren lagun izan bear dan Eleizea eta dana menperatzen dauan dirua bide orretatik joan ezkerok?

Arerio aundiak euskerearen bide jatorrak daukazanak! Eta, gaiñara, arerio orreik isillean eta benetan berba egiten dabenean errazoia emoten dauskue.

Bakarrik geldituko garala? Ba-leiteke. Erria gugaz dala, erri isillak errazoia isillean emoten dauskula, baiña bakarrik.

## ORTIK DOAZ GAUR

Indar orrek eraginda-edo, gaur bide orretatik doaz euskaldunak. Batu-zaleak, euren bidea dabe-ta, alde batera itzita, atxea nai ez-eta, atxeak garrantzirik ez daukola-ta, ortik doaz Izkuntza-Eskolako adiskideak. Labayru ta Ikasturteko lankideak, Euba'ko Ikastolea dan "Lauaxeta", bide orretara sartu jakun Deia'ko IGANDERO pozgarria eta beste batzuk be laster sartuko ete diran. Zergaitik? Jaurlaritzaren indarrez batzuk, diru-bearrez beste batzuk, irakaskintza ortik doalako, eziketako errazoiz beste batzuk... Zelako utsa egin dauan orretan Eusko-Jaurlaritzak, Mitxelena'ren eragiñaz! Kondairearen eskuetan izten dogu jokabide ori ta orren jarraitzaileak epaitzea!

## GUK ZER?

Guk geure bidea argi daukagu. Zabalkundeak azpiratu ez dauan erria geugaz daukagu eta erri orregaz zintzoak izango gara. Eta lan egingo dogu.

Nortzuk garan EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA, Euskerazaleak, Kardaberaz, eta agerbi-de bat lez, ZER.

Bide-erdian alboratzen jakuzanak min emoten dauskue eta eurakaz baterako lana ezin egin izango dogu, baiña gorroto barik, etorkizunaren itxaropenaz, aurrera goaz.

## Euskalerritik Mundura Begira

# KORTZEGA

*Lurrarteko Itxaso edo Mediterranea'n dagoan ugarte bat dozu Kortzega. Itali'tik urbillago Frantzi'tik baiño. Ala ere, Frantzi'koa da gaurkoz.*

*Ez da aundia. Gure Naparroa baiño txikiagoa. Araba eta Bizkai, bat egiñik, badira lurrez Kortzega bezain aundiak, eta jendez askoz aundiagoak, arek 250.000 biztanle besterik ez bait dauz. Naiz txikia izan, ordea, badauz Kortzega'k bereiztasun ezagun-garriak. Lurralde politikak, mendi aundiekin, ia iru milla metroko mendi eder aundiekin; erri-yakintza eta erri-izaera bere-bereak, eta baita izkuntza bat ere, erromateko latera edo latiniatik sortua, baiña Frantzi'ko edo Itali'ko izkuntzak bezelakoa ez dana.*

\* \* \*

*Kortzegatarrek «Corsica» esaten dautsoe bere ugarteari. Askatasun-zaleak izan dira beti eta borroka asko egin dabe askatasunaren alde. Askatasun-zale diraute oraindik, eta gaur ere askatasunaren alde borrokan dabilta.*

*Leku nabarmenean dago Kortzega-ta, izan dabe kortzegatarrek norekin borrokan ibilli, feniziar, greziar, kartagotar eta erromatarretatik asita, lur-lapurtzalle danak ipiñi bait dabez beren oñak ugarte kilika'garri artan.*

*Erdi-Aroan, Elizaren Laterrien zati izan zan, Aitasantu batek Pisa'ko Errepublikari eman eutsan arte.*

*Gero jenobatarrek, indarrez kendu eutseen pisatarrei, eta, azkenean, aiek Frantzi'ri saldu 1768'garren urtean.*

*Kortzega'ko jendea urduri ibilli zan beti, askatasunaren alde, batez ere jenobatarren eta frantziarren aurka.*

\* \* \*

*Borrokan zebillen Napoleon jaio zanean ere; eta onen aita ere, Carlo Buonaparte, Paoli buruzagiaren lenengo laguntzalle lez, Frantzi'ren aurka borroka artan sartu-sarturik zegoan.*

*Napoleon'ek ordea, aundikaritasun-goseak eraginda, laister egin eutsan uko bere aberri txikiari. Eta berak eraman eban, azkenean erabat, Frantzi-ren menpera Kortzega'ko ugarte.*

*Bere betiko arrokeria asetzeko, Kortzega txikerreko buruzagi ez baiño Frantzi'ko inperatore izatea zetorkion egoki Napoleon Bonaparte'ri.*

\* \* \*

*Gaurko egun auetan maiz ikusiko dozu izparrin-*

*gietan, askatasun eske ari dan Kortzega'ren izena. Eta badirudi frantziarrek asperten asi dirala.*

*Ill ontan bertan egin da Frantzi'n ikerketa edo enkueta bat. Eta ikertuak izan diranetik geienak, eundik irurogeita geiagok, naiz Kortzega Frantzi'ren zati dala uste izan, kortzegatarrei bere erriaren etorkizuna beren artean auteskudean bitartez erabakitze eskubidea ematearen aldeko dirala aitortu dute. Ots: Kortzegarri «autodeterminazioa» ematearen aldeko!*

*Ori egia ba'da, badau gizadi guziak eta badogu bereiziki erri txikietako seme geranok, poztutzeko arrazoirik naiko. Orain arte Frantzi izan bait da erdirakoikeri edo zentralismuaren sortzalle eta erabiltzaillerik gogorrena. Bere barruan dauzan errialdeen askatasun eta izate uts berberaren etsairik aundiena! Asko aldatu dira giroak Frantzi'n! Berak erakutsi zuan munduan erdirakoikeria. Berak erakutsiko ote digu orain, Kortzega'tik asita, erri txikiei zor jakezan eskubideak on-ezagutzen, errekonozitzen?*

\* \* \*

*Izan ere, orixe da arazo oni buruz, Elizaren dotriña: «autodeterminazioa»: bere buruaz zer egin erabakitze erri bakoitzari eskubide osoa ematea.*

*Erri batek ez du Laterri yare edo estadu libre biurtzeko bearkuntzarik, obligaziorik. Bere nortasuna gordetzeko bai, badau bere nortsuna gordetzeko eta bizkortzeko bearkizuna. Ez ordea askatasuna lortzekoa. Baiña erri orrek askatasuna gura ba'dau, orduan bai, eskubide osoa dau orduan bere burua Laterri yare biurtzeko. Erri guziak dabe eskubide ori eta beste iñork baiño geiago gure Euzkadi'k, Euskalerrria bait da Europa'ko erririk zaarrena, eta munduko erririk zaarrenetako eta bereizietako bat.*

\* \* \*

*Aspaldi ontan «independentzia» era «autodeterminazioa» deadarka dabilzkigu Euzkadi'n ere gure komunist ezkertiarrek. Kontuz ordea! Komunisten eta komunist ez garanon «autodeterminazioa» ez bait dira berdiñak. Baiña Lenin'ek aldarrikatutako «autodeterminazioaz», beste egun batean mintzatuko gara, Kortzega ez eze, askatasunaren alde borrokan jaduten bait dau, errusiarren aurka, Afganistan'ek; eta erri gaixo onetaz ere esan bearko bait dogu zerbait.*

LATIEGI'tar BIXENTE

# PSOE AKULARI

Ez dakit nik zergaitik arritu garran euskerari buruz PSOE'ko gobernuak artu dauan erabakia jakitean.

Gutzat argi dago belaunaldietan zear espāñarrak, banaka batzuk izan ezik, euskaldunen eta Euskal Erriaren edozelako berezitasunen etsai amorratuak izan dirala beti.

Gerra-osteko ekintzalleren bat ezagutu dogu bestelakorik baiña ez aski.

Onetarikoen artean Eibarko Baskaran zarra gogoratzen dot: Donostiko «Martutene hotelean» ezagutu neban 1950'garreneko uda-inguruan «kerezpean» egin neban egotaldian.

Ogei urteko mutil gazte nintzala, idealismoz beterik eta jakin egarriz, ni abertzale agertzen nintzan gizon jator aregaz izan neban barriketaldi labur baiña mamentsuetan; iñoiz ez dot aztuko aren agotik bein entzuna: «Zure iritzietan, Josu, arrazoizko bidea aukeratu dozu, jarraitu orrelaxe».

Euskera normalizatzeko edo dalako legearen aurka PSOE'ko gobernuaren estenkadea ta azpikeriaren barriak argitaratu diranean Baskaran'en irudia ta niri

esandako itzak beintzat, gogoratu dodaz; baiña arek isilpeko gizonak ziran ta alakoak beste talde ta lekuetan lez, alboratuta dagoz aurki.

Len iñundik iñora ikusten ez genduzan listillo ta berbalapikoek dira nagusi, naizta noizik bein demagogi utsean alde agertu, euskera museoko gomutagarritzat ikusi nai leukienak.

\* \* \*

Baiña PSOE'ren erabaki oneri ez dautsagu daukan baiño garrantzi geiago emon bear.

Nitzat beintzat askoz burukomintsuago dira abertzale garala diñogunon epelkeri ta ekintzarik eza.

Eskola ta ikastola ugaritze itxaropentsua ikusten dogu batetik, baiña atzo oindiño euskaldun utsak ziran errien kaleetan umeen artean geroago ta euskera gitxiago entzuten da.

Alderdi politikoen zabalkundea euskerazko edo antzeko sloganez beterik baiña politikoez, mitiñetatik aparte, etxean eta lagunartean parra-parra erdera utsean.

Udaletako kale-garbitzalle izateko konkursoetan euskera jakitea meritugarritzat jarrita, baiña alka-

te ta udalgizon askok Agur esaten baiño besterik ez dakitela.

Ba-dakigu euskera ez dala egun batetik bestera ikasten baiña arduradun batentzat derrigorrezkoa deritzagu ikasteko alegiñetan agertuz eredugarri azaltzea; ta seme-alabak ingles ikasten Inglatera bialdu baiño lenago euskera ikasten baserri punta batera bialtzea.

\* \* \*

Besterik ezean Euskal Unibersitate urrun ikusten ba'dogu bere... zergaitik ez euskera etxeko ta lagunarteko izkuntza bakartzak aukeratu?

Batuzaleak eurenagaz eta gu gureagaz, zergaitik ez alkarreriarrika barik erdera baztertzeko alegiñetan alkartu?

Arlo onetan etorkizuna izango dogu epaille baiña gaurko agintari ta arduradunak erantzule.

Onelan, nai dan beste luzatuko giñakez baiña erostaka azaltzea gure aspaldiko gaitza da. Orregaitik, bear ba'da, PSOE'ren eta antzekoen akulukadak ondo baiño obeto datorkiguz.

ARENZA'tar JOSU

## G A I T Z

*Ar baltzak urratuta  
azalak negar,  
enborraren mamiña  
odol gorritan dago  
iltzeaz.*

*Eguzkiaren zigor  
zelaia iger,  
sutan dagola iduri,  
lurrak, gorri, ezer ez,  
gaitz oker.*

*Ekaitza itxasoan,  
ikaragarri,  
itxastarreen bizia  
ondamendian dabil,  
ilgarri.*

*Gizonak otsotuta  
gose griñetan,  
laç arkeri aundina  
erriak zapaltzea  
erpetan.*

*Geroz, erri minduak  
zer dau ondoren,  
erritarrik onenak  
miñez ta odoletan  
ondatzen.*

PAULIN

# QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK

## VII GORAPEN-ABESTIA

<sup>37</sup>Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
babes sendoa emon zeustalako

<sup>38</sup>nire ondatzailleen aurka eta [...] astinduko dabezan zoritxarretatik babestu egingo nozu...

<sup>39</sup>iñor be ez da sartuko [...]

### IV SORTA

... ..  
<sup>3</sup>[...] Zeuk jarri zenduzan nire oiñak arkatxean  
<sup>4</sup>bide-zidor betikorantz ibilteko.  
Nere bide-zidorrak Zeuk aukeratu zenduzan!

## VIII GORAPEN-ABESTIA

### IV SORTA

<sup>5</sup>Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
nire aurpegia argiz bete dozulako.  
Zure Alkartasuna, egunsentia lakoa.

<sup>6</sup>Nik zintzoro billatzen zaitut;  
zure goizaldean diz-diz egiten dozu nire aurrean.

<sup>7</sup>Baiña, oil, zure erriko beste batzui  
guzur-zabaltzailleak iruzur egiten dautsoe euren az-  
pikeriz.

Errakuntza-adierazleak galerazo egiten dautsoe sus-  
moa.

Areik —lilluratuta— euren ondapenera doaz arin.

<sup>8</sup>Arein egintzak zorakeriak baiño ez dira.  
Ni, ostera, utsean nauke, ez nabe ontzat artzen,  
zure aal-izatea nigan argi-argi agertzen danarren  
be.

<sup>9</sup>Txoria beronen apiatik lez bota nenduen nire lu-  
rraldetik. Nire adiskide ta senide guztiak urrundu  
egin ziran nigandik,  
zabor-iturri lez erabili nenduen.

<sup>10</sup>Guzurrezko ikusleak, ostera, guzurrezko jaki-  
tearen jabeak, Belial'en kimuak, irakaspena alda-  
tzea nai izan eben,

<sup>11</sup>Zuk nire biotzean zizelkatu zenduan irakaspe-  
na.

Erriaren arten maltzur-berbak banandurik,  
egarritsuena eskuan egoan jakintza-edaria kendu  
egin eben.

Patar motelgarriaz moskortu ebezan, arein mosko-  
rraz baliatzeko, zorabiotan jausi zeitezana;

<sup>12</sup>areik euren jaietan euren sareetan arrapatzeko  
asmotan ziarduen.

Baiña Zuk, Jaungoiko orrek, barre-santzoka,  
barre egiten dozu Belial'en asmoen lepotik.  
Zure naia burutu egiten da edozela be;  
zure asmoa betiko izan ezarria;

Belial'en egitarauak, ostera, galdu-egitarauak dira.

<sup>13</sup>Areik antze-emoilleak soillik dira.  
Zu billatzen zaituenean, euren irabaziagaitik da,  
zure egiagaitik ez.

Arein asmoak azentzio ta edenezko zusterretik sor-  
tzen dira.

<sup>14</sup>Euren biotz gogorrek narratz eroanda, bururik  
ez dabela doaz.

Euren sasi-jainkoen erdian Zeu aurkitzea uste dabe.  
Ain zuzen be, zuzendaritzat eurak ondamentirak  
eroaten diarduana artzen irauten dabe.

<sup>15</sup>Guzurrezko profeten berbak zuzendurik gura  
zaitue aurkitzea;

profeta orreik, izkera arrotzez, ezpan motelez,  
ameskeriak esan baiño ez dabe besterik egiten.

<sup>16</sup>Zure erriari berba egiten dautsoe;  
euren maltzurkeriaz zure egitsariai balioa kentzea  
gura dabe.

Ez leuke zure abotsik entzun nai,  
ezta zure itzari jaramonik egin be.  
Agiri-agirian dagoan aurrean, «Ez da orrela» [esan  
eben].

Ze erantzun emongo dautsezu, ene Jaungoiko orrek?

<sup>18</sup>Zigortu egingo dozuz zure aal-izateaz,  
arein dongakeri ta sasi-jainkokeriak euren ordaiña  
artuko dabe,

euren lakioetan beretan jausiko dira.

Zure Alkartasunaren zin-ausleak alakoak!

<sup>19</sup>Zeure epaiaz ezereztuko dozuz iruzurtiak.

Arrezkero ezin aurkitu izango da sasi-ikuslerik.

<sup>20</sup>Zure erabagi sendoan ez dago ezbaierik, ez  
erostarik.

Zeure aurrean iraungo dabe betiko zure maitasuna-  
ren gai diranak.

Zure biotzaren bide-zidorrean dabizanak

<sup>21</sup>iñoiz be ez dabe urritasunik jasango.

Nire eusgarri Zeu soillik zaran ezkeru,  
ni zapaltzen aalegintzen diranai gogor egiteko jagi-  
ko naz.

Niri irri egiten daustenen aurka jagiko da nire es-  
kua.

<sup>22</sup>Zure aal-izatea neugan agertzen zenduanik  
onartu nai ez ebelako.

Jakiña, ba!, indartsu agertuko dozu nigan zure argi  
bikaiña.

<sup>23</sup>...

<sup>24</sup>Nire deiari jarraiturik, zure Alkartasunean  
sartu ziranen aurpegiak  
ez dira lotsatuta geratuko.

Nire esaneko diranak, zeure biotzeko bidetik dozuz  
aurrera,

<sup>25</sup>euren lekua santuen batzaldian artzen dabe.  
Arein elburuari azken-garaipena emongo dautsazu.  
Kutsatu-eziñezko argitasunaz agerrerezoko dozuz  
egia.

Ez dozuz laketuko galduak arei bidea galduazotea.

<sup>26</sup>Ori azpiz jokatu dagienean, zure errian arein  
ustebagetasuna sarrerazoko dozuz.

Auzirako ondapen-tresna lez erabiliko dozuz,

<sup>27</sup>zure berba-ausleak ondatzeko.

Nire bidez argitu egin dozuz askoren aurpegia  
eta zenbatu-eziñak izateraiño geitu zenduzan.

Niri zure ezkutu miragarriak ezaguerazo daustazuz.

<sup>28</sup>Zure asmo arrigarrian, nigan zeure aal-izatea  
agertu zenduan.

Miragarriak egin zenduzan askoren aurrean, zeure  
gorapenerako

<sup>29</sup>eta bizidun guztiak zeure egitsariak ezagutu  
dagiezan.

Zein gizaki da gauza orretarako?

Zein buztin-izakik izango dau zure arrigarriak egi-  
teko aal-izaterik?

Bestetara bai: gizakia gaiztakeritan datza

<sup>30</sup>ama-sabelean ezkeru,

eta arek zaartzarorarte maltzur errudun izaten  
iraungo dau.

Ba-dakit nik zuzentasuna gizonari ez dagokiona.

Bide-zidorreko bikaintasuna ez da Adan'en semeena  
eurena.

<sup>31</sup>Jaungoiko gorengoarenak dira zuzentasun-  
egintza guztiak.

Gizonaren bidea, Jaungoikoak aregan eratu dauan  
espirituaren indarrez soillik da iraunkor,

<sup>32</sup>Adan'en semeen bide-zidorra bikaiña egiteko,  
aren jokabide zuzenaz, Jaungoikoaren egintza in-  
dartsua ezagutu dagien,

baita Aren naiaren seme guztiakanako erruki ugaria  
be.

<sup>33</sup>Bildurra eta estureak artu nenduen,

zatitu egin ziran nire azur guztiak,

nire biotza argizaria su-aurrean lez urtzen zan.

<sup>34</sup>Nire belaunak laban egiten eben —aldapa-bee-  
ra txirristaka doan urak lez—

neure erruak eta neure gurasoen maltzurkeria gogo-  
ratzean.

Dongak zeure alkartasunaren aurka

eta gaiztoak zeure itzaren aurka jagi izan ziran al-  
dian,

<sup>35</sup>nik auxe esan neban:

Neure agindu-austeagaitik izan naz bertan-beera  
itzia

eta zure itunpenetik jaurtia.

Baiña zure eskuaren indarra eta, aldi berean,

<sup>36</sup>zure erruki ugariak gogora ekarri nebazanean,  
adorea ta indarra artu nebazan barrero,

eta, jagirik, nire espiritua indartsua egin zan,

atsekabeari gogor egiteko.

<sup>37</sup>Zeure ontasunai ta maitesarre azkenbageai  
oratu neutsen.

Zuk dongakeria ezereztu eta errua garbitu egiten  
dozu.

<sup>38</sup>Gizonak gelditu bagarik diardu Zuk egin dozuz-  
na [begiratzen],

dongea ta zintzoa Zeuk egin dozuz-ta.

<sup>39</sup>Zeure itunpenaz sendotu nenduzun [...],

<sup>40</sup>zeure aurrean [iraungo dot], egia Zeu zara-ta;  
zure egintza guztiak, barriz, zuzenak dira.

## V SORTA

<sup>1</sup>Zure parkamena ugaria da,  
zure errukia oso aberatsa.

<sup>2</sup>... ..

<sup>3</sup>[...] au ezagutu nebanean [...]

<sup>4</sup>zeure naitan eta [Zu billatzen zaituen] guzti  
arein zentzunean.

# XVII MENDEKO BERTSO ZARRAK

Markiña'ko komentu onetan makiña liburu zar daukaguz. Euren balioa desberdiña dala ez dago zer esanik. Baiña tartean aldian bein, gauza interesgarriak aurkitu geinkez.

Ondo dakizuenez, liburu zar askoren estalia narruzkoa da, baiña ez zarrenen artean ain zuzen be. Asierakoak estali sendoz orniduak datorkiguz. XVII eta XVIII mendekoak geienbat bai, narruzko azalkiak dabez. Narruzko azalok barruz dotoreago edo erakusteko, beste nunbaiteko paperak erabiltzen ziran bear orretarako. Ni neu olako narru-estalietan ea zerbait jakingarri aurkitu leikean billa ibiltzen nabil.

Eta egun baten benetan interesgarri izan zeinkezan paper batzukaz topo egin neban. Paperak ez egozan euren osotasunean liburuari estalgarria emoteko beste, gaiñezkoa moztuta lagata. Dana dala naiko luzea dogu.

Interesgarria bizkaieraz idatzita ta XVII mendekoa zalako. Antxiñako egunetan bizkaiera beste euskalki artean beartsuagoa agertzen jaku. Orregaitik idazlana ta egillea ezagunak ete ziran jakin naian jarri nintzan. Egiñalak egin

nebazan gai oneik garbitzeko eta nire jakin-naia beteteko. Baiña ez neban gauz andirik lortu.

Idazlana, esan dodanez, moztuta agertzen da. Baiña bertso geienak —bertsotan da ba idazlana argitaratuta— emen daukaguzala dirudi. Bertso orreik, geroko «bertso berriak» argitaratzen ziran lez, argitaratuak izan ziran bearbada.

Idazlanaren idazpurua ta urrengo amazpi lerroak, bai-ta azkenengo orrialdean datozen Licenciado Julián de Gortazar y Billela'ren Sonetoa, eta egilleari zuzendutako goratarre-lerroak, gazte-leraz datoz.

Ze jakingarri jaso geinkez bertso orreitatik? Idazpuruan «CANCIÓN» dala diño. Ondar-ibaia (Ondarrabia), Frantzesen erasoalditik onez atera eban Domingo López de Egia, «natural de la Villa de Bilbao»koaren omenez dirala jarriak bertso oneik. Garaitze ori 1638'ko Urria'ren (Iraila'ren) 7'an izan zala.

Labayru'k bere «Historia de Bizcaya, tomo V, 275-276» tan auxe diño: «Por tratarse de un hijo de Bizcaya que, como jefe de la guarnición que custodió la fortaleza de Fuenterrabía desde antes del

asedio hasta el completo triunfo de la villa cercada y combatida con fiereza, merecen registrarse aquí las dos cartas que recibió del rey (Felipe IV) y el Conde-Duque (D. Gaspar de Guzmán), el valeroso defensor de Fuenterrabía, que después fue investido por el Almirante de Castilla del hábito de caballero de Santiago». «A este bilbaino le recompensó S. M. los servicios de su gobierno dentro de Fuenterrabía durante el sitio, además de otras gracias, con el ascenso de maese de Campo». Euskerazko gure lan au ez dau izentatuten. Ez eban ezagutuko edo ez eban aintzat artuko bearbada.

Baten batek «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco»n, Egia ori naparra, Estella'n jaioa dala diño. Oker dago. Oneik dira nire billaketa laburretatik jaso dotazan zertzeladak Egia'ri buruz.

Bertso-jartzaillea Juan Bautista de Alzola y Muntzaraz dala argi ta argi dago. Baiña nor dogu bearau? Bere aztarrenik ez dot iñun aurkitu, nai-ta Juan Bautista Licenciado ta zerbait geiago izan. Durangotarra zan, eta Muntzaraz bertakoa agian. Ea norbaitek nunbaiten nik baiño zori obeago aurkitzen daberen egilleari buruz.



Ez naz ni iñor bertsoen balioa zenbatekoa dan, aztatuteko. Filolojia-arloan eta batez be bizkaierari buruz naiko interesgarriak izan leikez gure euskalki onen literatur-sailla obeto ezagututeko-edo.

Or doatsuz Alzola eta Muntxaraz'en bertsoak. Ez dira osooak, zoritxarrez, «Canción» orretan agertzen ziran bertsoak eta ZER'i eskeintzen dautso guzuanak. Bertsoen idazkera gaurkoratu egin dot, baiña beste korapilloak azkatu bagarik laga dodazala esango neunke.

*Felipe Españako, done andia eskuberu, dozu, mundu guztia, Alegradu bidi, Kristau erria libradu dalako, ondar ibaya: Ogei mila gizon, Franzia erriko egozan aldi baten, su, emaiteko, Arako Bizkaitar, Domingo Egiko izan da bakarrik, irabazteko, Iaun doneperi Deustuko batizadua onradu izan dozu, zeure lekua, Etse infanzonaduko, seme iaioa Bizkaiko onetarik, animosoa, Mundu guztia dago, atsegin onean, egin dozulako, giza legea, Iaunari alabanzak, prosezinoak, Bizkaiak egin dituz, gorde paskoak, Beste Moisen bat, kumareanik, gizon au egon da, señaladurik, Iaunen eskurean, gobernadurik, aenbeste egin dau, Espalagaitik, Zegaiti eugi daben humildadea, merezi du ez eiteko, ango plazea, Obedenziagaz, azeptadurik lealtadeagaz, ondo jagonik. Txaldor bagarik, miñak fursulleteko ez, Domingo Egikori, itxaideteko, Domingo Pazkoben izen andia Koronikagarri, zeure, egia txakurren ogia, emongo deutsu Domingo Egikok bazagiz artu Martizen susperroa, eldu ekizun Feliperi egiteko, gustiok, oñean, mun. Txakurren ametsagaz, palmak asko eroango dozuz, Frantziarako, Gastelako Almirantea, miserikordia bear izan dozu, neure egia, Zegaiti dalako, Kristiau, andia errege anditsuen, ispillu argia. Bederatzigarren Kapitulan S. Matheok diño, Iuanen foruan Eztot nik, bilatuko, sakrifizioak eska badakidaz, miserikordiak Santu onen, esanaz, akordadurik Kristiau, zireanak, arnasa esturik, Belaunez lurrean, Franzia gustia Almirante Jauna, miserikordia A legez izan baniz, Jainkoben fedea*

*erakutsika neusten, gañbitea, Zegaiti ez takien, Berba osorik jagotu inoxbere Yzorrabagarik. On lizate bakea, legerik baliz: autsi ezpa legie, Berbea barriz, Ostera eta laster, alkar arturik jupoak bear dituez, aforradurik Daragiegun artean, xil, eraso armaen indarragaz Kristiau oso Il zelegiezan, Españakoak negarrez egozan, nola eskekoak, Victor España ta Gola (?) Franzia geadar minakaz, jente andia konfianza orregaz, bizi arren gu larretan diñoa, si, non , bule, bu Si bule, bu, e non, bule bu Franzesai bear jate, ausi buru Arzobispo Burdeosko, Perladu gejoa estuan daroazu, zeure kolkoa*

*Erraz zuratean, beste amar milla berrogeta amargino, dira heriduak dulabre eukezalako euren eskuak ogeta amalau tiro, bronze onezkoak. An etxi zituen, Franzikoak, berrogeta sei bandera, peleakoak arkabuz da, pistola, munizitioak Arzobispoen oea, Prinzipen bagera gureak ezar dezan, lepoaz etsera kapuzai granazkoak, erropa asko mutil pikarork, jantzi ezteko mosketa eta lanza, kontu bagarik laureun da geiago, zaldia ilik eun da larogei mila, dukat urrezko Franzesai patea, egin eiteko sartu ziteanean, ondar ibaian Frantziarik ekar dezan, eurak aldean Bizitzak, osasunak, esperanza andiak an galdu zituen, Frantzes gustiak, Gastelako Almirante Generosoa sar zidin orduan, animosoa. Ekusi egiane, Domingo Egiko kasi lurraen, etxugi, jako esaten eusala, modu onean Berba onek, aen, artean, izan zitean D. Domingo Egiko, balerosoa beutso erregegaiti laztan osoa, Bigarrena España gustiagaiti irugarrena, barriz, neuk, zeugaiti, Erregen Majestaden biotz osoagaz, Maese de Campo, zara, bastoa onegaz Kastillau, gobernadore ondar ibaiko egiten zaituz zeu sekula betiko, Pamplonako Gastelu, atxinakoa zeure eskuetan elxuten doa: Komendadore zara, jaun done akubeko Kurutze gorriagaz bularetarako zu legez kurutze au, merezidurik Españan eztago, saldun bizirik: Asko eta geiago, merezifu ozu dabelako Españak, atsegin artu: Ezin gitxiago, egin zendukean parkatu Bizkaitari, lealtadean: Faltadu ezin lel, berba errealak ez zagan bere iñox, ametsak, onak Escribietan deusun, karta gustian ifinten zaituz, zeu, zoor andian*

*Ekusiko dozu, later batean nola zorretarik, urten dokean: Erregen Majestaden, karten andia zagan iminten dau, biotz gustia: Konde Dukearen izar argian, zu izango zara, Domingo Egia: Zuti dagoan artean, ene burua, Almirantea lege, eutsi eskua: Izango nozula, adiskide, andi naxan artean, munduan, bizi: Laguna, anajea, adiskidea izango natxazu, ene fedea, Ezin gitxiago, esan neukean parkatu Bizkaitari, lealtadean: Betoz, alkandorak, ene kofrerean zatxut bertati, Domingo oean: Zergaiti ekusen, Almiranteak izerdiz baltziturik, Beaturik, oek: Onrra emaiterren, Almirantea egiten aginetan dau, zuretzat oea: Bera zure maian, zu aen aldean ze ondo, zirudian, ao esatean, Animadu Bitez Bizkaikoak irudi eiteko, atxinakoak: Bizkaiko legeak, and foruak erregen Majestadeak konfirmaduak: Atxinarik dituz mereziduak zegaiti dituezan, garbi, eskuak: Principe de Conde trompeteagaz zematuz zengizanean eriotzeagaz: Emon zengiozala, Gasteluen, Gilzak: Parkatu leizula, guztioi, Bizitzak: Zeu ez da besteok, leku gustian ifini egizan, bildur, andian: Baia zuk, Bizkaitarren lege onean Eguntano Bizkaikoak, orrelangaorik eztago egin dabela eskribidurik: Bizkaitarrak, giltzak, Franzesai emon ez eta balira, gustiok, Sanson: Onrreagaz jao, Onrreagaz il gizona gizalegen, ez beti, mutil: Lurrean Victoria, zeruan gloria Irabazi dozu, Domingo Egia: Bazakioz, Birtuteari, beti jarraitu Santutzat, Jaungoikoa, ekusi daizu: Birjinearen bespera, eungustia sekula gorde eikezu ondar ibaia: Domingo Bizkaikoari, zorra deutsazu ez pa, ia, zinean gustiok Gabatxu: Mila eta seireun da, ogeta amazotsi garrenea, izanda, bihiak, bizi: Urrien zazpigarren, egun gustia Españenzat, aurtan, izan zidia: Ain egun alegrea, akordetako papera geiago, balziateko: Dagigun gustiok, atsegin artu atsoak albiste, neuri indazu: zegaiti deutsuden, negu gustiko zer esan ifini sugaterako: Gasteak egizu, danza eta saltu Paris bear dogu, urtera artu: Eztaukezanak, pozik, gogoak izan dagiezala, paskoa jestoak: Alan daukezala, olandakoak zegaiti direan txakur osoak*

JOSEBA ZUBIKARAI

# F. ARTOLA

Ona, irakurle, beste euskal idazle baten utsunea: gure «Bordari» izlari, idazle ta olerkari jatorrak be, oraintsu, aurtengo otsaillaren 3'an agur egin euskun. Bera prest egoan —emaztea be joana jakon-eta— beste aldeko egoitzetara egaz egiteko; baiña guk, emen geratzen gareanok, nai ez ba olakorik. Ba-da, alan be, Norbait gu baiño altsu, jakitun eta aundiago dana, eta guk kaxkarrok Aren naia bete bear.

## GIZONA

Nor genduan Artola jauna? Gizaki zintzo ta alaia, Ondarribi'n jaioa, 1910'an; Artolatarrak —Ramón, Pepe ta Rosario— ezagunak ditugu euskal literaturan. Onein senidartekoa dozu Farnardo be, naizta ondarribitar izan jaiotzez. Norbaitek liburu bat argitaratzen dauanean, egoki ei, Bordari'k diñoskunez, jakitea nor eta nolakoa dogun egille ori. Baiña idazleak bere buruari txalo egitea, bakoitzaren auleriak eta murriztasunak besteri azaltzea, ergelkeri galanta ei da.

Beraz, ez dakigu Bordari'k berak esanda Artola nor genduan. Baiña bai, orraitino bere inguruan bizi izanak esanda, ba-dakigu ondarrabitar xaloe nor genduan. Martín Iturbe apaiza, ango euskal idazlea, arekin ar-emon barrukoa izana dogu. Onela idazten dausku onek: «Esan dezadan, Artola, idazlea, ezaguna zaidala... Or dago gizona, or dago idazlea. Gizon bezela dagokionez zerbait esatekotan, auxe esango nuke: begi erneaz eta biotz irekiaz, bizitzari korapilatua dagoala. Bere arnasa eta odolaren lurrun be-roa dario eten gabe idazlan guztiaren zear. Buru arri-garri orretan daraman asmamen ugari eta irudimen oparoan oretoak dakarzki, gero paperera irauliko dituan erabakiak, Asko ikusitako gizona, asko bizitako gizona, inguruan gertatzen diranetatik ezer ez du zokorako. Ezur-mamiak alkarri josiak dauden bezelaxe daramazki Bordarik bere eta bere erriko ame-

tsak. Oiñarri ontan tinkaturik zabaltzen ditu Bordarik bere idazlanen egalak».

Eta zelakoa dan besteren eskuetan itxirik, nor dan azaltzen dausku zintzoro. Ondarribi'n jaio zan bera, eta bere anai-arrebak, amaika guztiz, zazpi neska ta lau mutil, eta oneitatik apaiz bat, Rafael jauna, eta moja bi, bat illa ta bestea oraindik bizi dana. Gazterik galdu eban aita, ama, barriz, «fede aundiko emakumea genuan, ezizaille aparta» diño Bordarik. «Ni nauzute —darrai— senide guzietan kalakariena ta nolabaitekoena. Ondo dakit ori. Itxura-egille aparta ere banaiz, gogoak ematean. Bakoitza, dan bezelakoa izaki».

Zazpi urtekin Guadalupe'ra igoten zan meza la-guntzera. Erriko ikastetxean osotu zituan bere lenengo ikasketak. Amalau urte zituala, eskola geiago ikasi bearrez, Irun'era jo eban, urte bi ikasten egiñaz. Amazazpi urtegaz ango txokolate fabrika baten asi zan lanean, bertan bederatzi urte errerik. Asko ikasi eban bertan. Errepublikan etorri zan, eta Bordari lanean aspertu barik, aberriaren aldeko lanean. «Lantegiko eginbearrak zintzo bete ondoren —diñosku—, txolarte guztiak gutxi ziran neretzat aberriaren aldeko ekintzetarako. Nunnai eta beti gure elburu-asmoak edatzen, mueta askotako biltzarretan esku artuaz, abesbatzako lagun, antzeketak ematen, mendigoizaleen taldeko, ots, saltsa guzitan, ta nolako saltsetan! Leia bizian, bizkor eta kementsu JEL'en alde».

Gerra sortu ta etsaiak Ondarribi artu-zori egozala, beste askoren artean, urez egin eban erbestertzea. Bellok'en egon zan praille artean zati baten, emendik osteran batzuk Hazparne'ra be egiñaz: emen aurkitu eban beintzat emaztegaia, Henriette. Gero Akitania ta inguruetan ara ta ona lan-billa; bein Bordale'n lanean egoalarik, España'ko gauzak pizkat samurtu zirala-ta, andik etorren ontzi batean Pasai'ra jo eban, eta emendik etxera, Ondarribi'ra. Txapelokerrak joan jakozan bein baiño geiagotan billa, baita espetxeratu be Irun'en, baiña laster itxi eben azke,

eta lana bear; ez eutsoen emon lengo lanpostua, eta Barzelona'raiño jo arren zerbait billa, an be lau illa-bete egiñagaitik, ezer ez. Ondarrabiratu ta emen ez-kondu zan 1943'ko maiatzean.

Bizitza aurrera ateratzeko, emon etsoen laguntasunaz denda txiki bat edegi eban Ondarribi'n. Eta berak onela: «Ni, gauza orotan bezala, saltzaille on bezain kobratzaille txar agertu nintzen. Bezeroei arrera ona egiteko trebea; kobratze kontu orretan, ordea, oso tontoa». Alan be, arrebak lagunduta, aurrera eroan eban denda ori. Gaiñera, urte askotan, bertako Arrantza Kofradiko idazkari lez egin eban lan, diruz naiko ondo aurkitzen zalarik. Aberri aldeko ixil-lana urteetan osotu eban, Iru seme-alaba izan situan.

## OLERKARI

Gaztetatik izan eban idazteko zaletasuna, eta gerra aurretik be «Donostia'ko Argia»-n eta «El Día»-n emon zituan bere idazlanak. Gero guda ostean, «El Diario Vasco» eta «La Voz de España» euskal-girotu ziranean, zerbait idazteko eskatu eutsoen, orrela egiñik. Arrezkero, «Euzko-Gogoa»-n, «Zeruko Argia»-n, «Arantzazu»-n, «Egan»-en, «Olerti»-n eta abarren idatzi izan dau itz-neurtuz eta askatuz.

Idazle zelaiko lanari buruz au esaten dausku berak: «Berrogei urtekin asi nintzan olerkiak egiten, bertsoak moldatzen... ta erderaz idazten! Gibelaundi ta ausarta alena, aizen ezjakiña, ori dek arpegia, oril esaten diot oraintxe ere askotan nere buruari. «Borda aiña bordari» esateko oitura zeukan nere amak; ortik dator nik «Bordari» ezizena autatzea. Ausarta xamarrara agertzen omen nintzan askotan eta, emendik kexa ta or zinkulin, irakurle asko nituan arren, asper-tu egin nintzen ia debaldeko lanean».

Ez, etzan aspertu idazten. Eriotz-aurretxoraiño idazlanari lotua ibilli jakun. Nik 1953'an ezagutu neban, neure «Milla Euskal-Olerki Eder» liburua osotzen nenbillela; goiz batean aratu nintzan eta, Ondarrabiko bazter txairo guztiak ikusi ondoren, bazkaria ederra egin genduan alkarrekin ango jatetxe baten, gerora be sarritan ospatu izan genduna. Olerkiari buruzkoa zan gure autua, eta gero, alkarri agur egin aurretik, ainbat euskal-paper eta poesi erakutsi eustazan, baita bildumarako pillotxoia neure eskuetan jarri be. Geroztik adiskide onak izan gareana, ez dago zetan esanik: Larra'ko Olerti-Egunean emen izaten genduan beti, alai, kantari ta zirtolari.

Oso atsegin neban nik Bordari'ren idazkera, bai bertsoz eta bai itz lauz edo prosaz. Bakotxak dau bere estiloa, eta Bordari'k bere-berea dau. M. Lekuon'ak onela: «Estilo arin, irudimen bizi, Txirrixtalaria, alde batetik; baiñan baita kontraste garratz-zalea ere bestetik». Itz-joko bitxia dau beti: «estiloaren barren-gu muña maite izan du batez ere. Eta orrela, Artearen kurpil ederra ederki du osotu».

Aspaldi dala zebillen bere lanak bilduma baten jarri ta argitara emon nairik; aren karpeta batzuk, berak asmo orrekin txukun eratuta, urteak dirala euki ditut nik emen... Azkenez, oraintsu oraindik, «Sendoa» argialetxeak bete dautso luzaroan asmoan iraulitako gurari jatorra, aren lanak ale eder bitan, «Bakoitzak Berea» titulupean, argitara emonik. Lenengo liburuak sail oneik dakaz: «Urratsak», «Kukuxo», «Ipui eskutada», «Kontu ondarrak», «Itzaldiak», «Odolaren mintzoa», «Chalbador hil da», «Bertsolarien inguruan», «Ezpal xumeak» eta «Bakarrizketa», eta bigarrenak: «Ene baitan», «Olaxta», «Izadi kanta», «Goraintzi», «Eraskiñak», «Ama», «Iparragirre», «Sol banatorkizue», «Tori Arantzazu», «Alegiak». Bi liburu ederrok ikusita gero joan jakun zerura.

Olerkari lez txapelketa askotara aurkeztu zan, baita naikoa sari eskuratu be. 1949'an, Bedoña'ko leiaketan, irugarrena jaso eban; «Olaxta»-z, «Eraskiñak»-ez, «Zutiñik Naparroaz», «Etorkia»-z eta «Alegiak»-az lenengo saria. Beraz, berrogei urteko zala asi ba'zan be poesiak biribiltzen, lan txalogarria osoturik joan jaku. 423 orrialde daukaz «Sendoa»-k argitaratu dauan bigarren aleak, guztiz olerkiz jantziak.

Bigarren ale oni J. M. Lekuona'k egin dautso sarrera, oso zentzuzkoa. Eta Bordari'ren poemak artezki jaso ta ulertzeko puntu oneik adierazten dauskuz: 1) *Kristau umanismoa eta euskalduntasuna*; izan be, Bordari'ren etxearen eta elizaren inguruko kutsua dabe; etxea eresi-gai, minberati bear bada, Henriette bere emaztea il jakonetik batez be, eta fedearen arazoak guztiz sakona da olerkariaren barnean; 2) *Dramatizazio-sena*; bere olerki-lanai egitura berezia ezarten dautse, eta au, antza danez, gaztetik egin zituan antzerki-lanetatik datorkio; 3) *Belokeko eremu-otsa*; esan dogunez, emengo izkillu-otsetik igeska, an bizi izan zan, ango irarkolan lan egiñik, eta an lekaide artean eroandako bizitzak zerbait itxi eban aren bizi-moldean eta literaturagintzan; 4) *Kazetaritza eta erri kultura*; kirol-gaiei buruz idatzi eban «El Diario Vasco»-n, baita bertsolarien goraberak be, onela erri-euskera menperatzera eldurik; 5) *Bidasoa ertzeko ertilarrien erreñua*; Bidasoa ibaia zoragarria dozu, bere inguru guztiakaz, poetak kantatu eta margolariak sarri pintatu, eta Bordari Ondarrabiko semeak ba-dau bere lanetan ibai orrek itxitako ederraren ederra; 6) *Lirikotasun minbera*; Bordari'ren olerki lan geienetan olako «lirikotasunaren amorio fiña» agiri da alderik alde.

Emaztea il ondoren Neurtitz-liburu bikaiña osotu eban, «Goraintzi». Ona bertotik artua, zatitxo bat: «Zure arimarimuxuka / nire gorputz argala / zurea zana / zurea dana / nere emazte laztana. / Bai, muxuka gabiltz / —egizko apa maiteak— / (otoitzarena-k) / espiritu-zko diran / laztan ezti luzeak». Auxe dogu Bordari.

AITA ONAINDIA

# ZENTZUNERATU GAITEZAN

Gure egunkari edo aldizkarietan idazlan batzuk irakurten dodazenean, euskeldunak zentzuna galdu ete-dogun uste izaten dot.

Lengo igande baten, euzko-ikustirriatiak darabilan euskereari buruz eta *Argia*-n norbaitek bizkaie-rearen kaltez eta «el batua»ren alde esan zituaneri erantzunez *Deia*-n deskaillez (kexaz) agertu izan ziran lantxueri nagokioe.

Ezezagun yatazan idazle areik, zuzen dagoz egon, euren esanetan: Euskera mordoillu arek jarrai ba-dadi jarrai, euskal-irratikuskiña bagarik erdel-*telebisiñoa* jarriko dabela geienak, «el batua» euskerearen kalterako izango dala ta abar. Zeuokaz naukaze, bete-betea, diñozuezanakaz. Baiña, jaunak, zeuok darabizuen euskereak be ez ete-dagitso kalterik, gero, Bizkai'ko euskera jatorrari? Besteen akatsak ikusi ta salatu bai, baiña, ez ete-zaree konturatu zeuok zelango euskerea darabizuen? Bai al dago bizkaie-reari atxeak ezartea baiño kalterarriagorik gure izkuntzearentzat? Zer dala-ta idatzi oguzten ez doguzan alperreko izkiak? Bizkaieran geienok erabilten doguzan izpiakerak alde batera itxi genduzan, idazteko, *ñ* ta *ll* izan ezik, batasunarren, eta zuok bizkai-ko euskerea baztertu gura dabeneri jarraituz, ezetarako be ez dan *h* ta abarreaz idazkera lorriña egiten diarduzue. Ezetarako be ez dan izki ori idatzi ba-dadizue ez al doguz zuen *nahi*, *hori*, *nahikoa*, *herri* ta abar *nagi*, *gori*, *nagikoa*, bestelakotu-ta irakurko, zuen *atxe bedeinkatu* ori iñok irakurri ba-dadi, beintzat? Olango *jín-jaunekaz* bagarik, garbia ta txukuna dogu Bizkai'ko euskerea. Eta, zer dala-ta gaiztu, zail-

du, idazkerea, alde guztietan erreztasunerako jokerea dagoanean? Ni neu, Bizkai'ko euskaldunen artean jaijo, azi, ezi ta bizi naz eta ez dot gure erkiko alderdietan iñoz be-iñoz be entzun izan zuek darabizuen erako euskerarik, jaunak. Baztergarria dogu, ba, bai itzez, bai joskeraz eta bai idazkeraz zabaldu gura dauskuzuen euskera lorrin baizen mordoillu ori. Zuek darabizuen ori ez da, ba, bizkaie-rea, jaunak. Eta Euzko-ikustirriatiak eta or dabizan aldizkari ta egunkari batzuk ez dirala (ezeze) mesedetako beste kalte dagitzazue, zeuok be, idazkera orreaz, Bizkai'ko euskera sendo baizen giartsuari.

Gaitezan zentzundun, eta euskerea benetan indarbarritu gura ba-dogu, gaitzetsi dagigun Arana-Goiri'ren arerioak ankerkiro ta indarrez ezarri gura dauskuen idazkera lorrin eta euskera arbuigarri ori; eta jarrai dagigun benetako erri-euskera garbi ta jatorra idazten eta itz egiten. Eta, lenengo, norberagandik asi akatsak kentzen, zuek darabizuen euskereak «el batua» uxagarriaren antza andiagoa dauko, gure euskelki jatorrarena baiño-ta.

Bizkaie-rea, ta, baita gipuzkerea be, polito garbitu-ta eta txukundurik daukaguz, idazle argi eta euskeltzale zintzoen alegiñez, eta urteak zear, ekiñaren-ekiñaz, egindako aurrerakuntza guztiak baztertu ta amesetako euskera gaizto ori erriari indarrez ezarri guraz ibiltea, kaltegarri be-kaltegarri dogu gure izkuntzearen indarbarritze ta etorkizunarentzat.

Zentzundu gaitezan, ba, guztiok, arren, euskerea bene-benetan berbiztu gura baldin ba-dogu.

AURRE-APRAIZ'tar BALENDIN

## DAMUTUAREN ERESIA

*Bai, Jauna.*

*Damu dot Zeu iraindu izana!  
Gaiztoa ete-naz?  
Txarra ete-naz?  
Baiña, damu dot  
Zeu iraindu izana.  
Neure iraiñak gora-bera,  
maite zaudaz, Jauna:  
Maite zaudaz!  
Eta zigur nago,  
Zuk, nire utsak,  
parkatuko dauztazuzana.*

*Naiz-ta neure lurra  
berantz eratzi,  
maite zaudaz, Jauna.  
Gogoko zaudaz eta  
beti naukazu gertu Zeure  
esana ta naia egiteko.  
Ez dagidala neure  
izatea onda  
lurkerien lupetzan,  
ez burukerien  
itxusikerian,  
ez aragiaren  
atzipekerian.*

*Zeurea nozu  
ta Zeu goresten bizi nai dot,  
naiz-ta neure akatsak  
goiz eta arrats samindu.*

\* \* \*

*...Poztu nagizu, Jauna;  
poztu eta azkortu,  
etsaien indarrak menperatuz  
jarrai daitzudan ustetsu.*

AURRE-APRAIZ



# MARIZULO'KO TRAKURRA

Millaka urte pasa dira Marizulo'ko leizean artzai bat lurperatu ebenetik ona. Alboan arkumetxu bat eta txakurra ditu berekin batera eortziak. Beste munduan be, arek ez zekien ofiziorik artzai baiño eta artzairik ez dago txakur barrik. Orregaitik edo bialdu ebezan biak alkarrekin beste mundura.

\* \* \*

Txakurra izan da beti gizonaren lagunik onena. Gizonarentzat bakarrik bizi dana. Eta gizon orrekin bakarrik bizi nai dauana, sekulan asarrebarik. Uzten ba'dozu utzi, zeuk iges eginda, segituko dautsu ondoren eta aurkitzen zaitudanean, a zelako pozak eta saltoak. Ez deutsu sekulan zure jokabide eskasa arpegira botako. Ez, ori ez.

\* \* \*

Gura guraso zaar-zaarren denbora atan txakurrari panteoirik ederrena emon eutsen bere negusiakin batera beste munduko bi-

deak egin aal izateko. Sepulturarik ederrena aiz-zulo baten ateetan.

Kolza - olioaren okerrak agertu aurretik, «pulmonia atipica» gai-

\* \* \*

xoagaz, jendea iltzen egoala-ta, txakurrari bota eutsien kulpa guztiak, eta, beste barik, asi ziran txakurak akabaten amorruguztiagaz. Txikota be argalenetik eten ei da... Zenbait udaletxetan be txakurren kontrako legeak emoten dabez gelditu barik, eurentzako eragozpenez baztarrak beteten. «Txakurrik, Ez»: kaleetan, ez; ondartzetan, ez; baratzetan, ez, etxeetan, ez... Txakurra gizonaren lagunik onena: gizona txakurraren etsairik zantarrena, gaiztoena. Garbitasuna aitzaki. Izan be, gizona ain garbia da bera, ze... Ondartzeetatik tonelada asko zikiñ ateratzen dabez bein da birritan eta geiagotan urtean zear... Txakurrenak? Ez baldekara bat be. Txakurraren lagun kutunarenak, bai.

Oraindik-orain txakurrak il dabez Miravalles'en pozoiez. Eriotz larria txakur koitaduentzat.

\* \* \*

Txakurra, bizi aal izateko, gizonaren bearrean da; baiña, erri askotan txakurrentzat lekurik ez dau gizonak uzten eta lagatzen. Gizonari lotuta dago, gizonaren mende eta zenbaitek, txakurra bear izanda be, ostikoz erabiltzen dau. Alan, be, txakurra beti gizonaren lagun gabaz nai egunez...

\* \* \*

Txakurtxuaren otoitxua:

Jauna, egizu neu gizonaren serbitzuan nagoan bezela, egon dadilla bera Zeurean eta lagunurkoarenean; nik bere gauzen arduradodan lez, izan dezala berak be zurea; ni bere mendean nagoan antzera, egon dadilla bera be zeurean. Nik bizitzeko gizona bear dot eta berak Zu. Ori ezagutzeko argia egiozu nere Jaun Gizonari.

ARRINDA'tar ANES

## "EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketara onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuin itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Orrillaren azkenerako gure lan-etxean (Colón de Larreategui, 14, 2.ª eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 30.000 pezeta; 2.ª 25.000 pezeta eta 3.ª 20.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.
- Maikoen erabagia, uztailleko ZER'en agertuko da.

# KARLA- TARREN II GUDEA

(II)



Karla Errege jaunak gudearen asierea egiteko agindua emon ebanetik, laster asi ziran joan-etorriak, ibilketak eta abiamenak.

Baiña zenbat gogozko gudari batu zirala uste do-zue?

Lenengo egunean eunera ez ziran eldu.

Gazteluan egun bat igaro ondoren Arratia'ra abiatu ziran eta guda-mutillen taldea geiagotu egin zan.

On Frantzisko Gudalburuaren esanak egiten ziran, eta, jakiña, onelango arazo ta eginkizunetan buru-auste ta iruzur-aldi ta ustegabeak ugari izaten ziran; lagunen eta ofizialen alde egitea, bizibide ta eskuarte gitxi...

Karla errege jaunak bederatzi milla ogerleko ordain-txartelatan eskiñi eutsozala esan eban Uribarri'k, baiña berak ez ebazala artu gura.

Guztiak jokabide zentzunduna artu eben eta muttil talde kementsu oneri nekaldi bildurgarriak eta daretariko atsekabeak etorri jakozan.

Alan eta guztiz be bildurra azpiratu eta Aurrera Mutillak! esaten eben, Ribicon ibaia igaro ebanean Zesar'ek esan eban antzera: «Alea jacta est», egitekoa eginda dago.

Ba-etozan mutillak geroago ta geiago: Arratia'tik Durango'ra joan ziran, Zengotita, Arginzoniz, Sierra, Urkizu ta Orue Gudalburuaren lagun zirala.

Markiña-aldean Ibazeta'tar Estanislao ta Sarasola'tar Jose Jaunak euken zeregin au. Gernika'n Allende Salazar'tar Pedro jaunak.

Enkarterriaren barruan Cuevillas'tar Florentzio Koronel J.<sup>a</sup>, Cobreros'tar Gustavo J.<sup>a</sup>, Salazar eta Salazar'tar Pedro J.<sup>a</sup>, Laguno'tar Anizeto J.<sup>a</sup> izan ziran laguntzaille.

Gudaketarako gauzak atondu eta eurak izan ziran lenengo gudea asi ebenak Gueñes'en 25 guardizibil erriko etxeetan gordetara beartu ebezan eta gero

izkilluak emon eta Bilbo'ra joateko aukerapena emon eutseen.

Orrillaren lenengo egunean ondo gertuta egoan gure gudaroste batua ta agurgarria.

Zazpi guda-batz ziran guztiz: Arratia'koa, Mungia'koa, Bilbo'koa, Durango'koa, Gernika'koa, Markiña'koa, Enkarterrikoa. Euren artean zaldidun-talde bat be ba-egoan, Noriega'tar Felix J.<sup>a</sup>k agindua.

Gudalburu Nagusia, Uribarri'tar Frantzisko jaun zan eta Borda'tar Luis J.<sup>a</sup> Kapellau; gudateko idazkari Ruiz de Arburo'tar Isidor; Osagillea Basozabal'dar Juan J.<sup>a</sup>, Batalloi guztiak eukezan kapellauak eta arduraduna, batzuk txaranga ta soiñuak be bai, beste batzuk osagille-ordeak eta ebaketariak.

Bizkaia'n egin zan Guda-dei au baiño eder ta obeagorik ezin izan leitekean: Zortzi egun izan ziran naikoa Karla Errege jaunaren ikurrinpean 4.000 naimenezko gudari baiño geiago batzeko.

Baiona' bertako aundiki batek euren izenean emon eban berbea gordeteko gertu egozan.

Jorraillaren 30'ean batu ziran Gernika'n eta orrillaren 1.<sup>o</sup>an guztiak alkartuta Aritzaren azpian, Iparragirre'k abestu eban «arbola Santua»ren ondoan, Aldundia barriztu eben, Guda-Aldundia, Arginzoniz'tar Antonio J.<sup>a</sup> buru zala.

Arginzoniz'ek euskeraz egin eutsen berbaldi goangarri bat baiña ez jakon atsegin izan Artiñano izeneko aundiki bateri, onek buruzagien eta Guda-Aldundiaren izendapena ez ebazan onartu. «Txarto asten dana txarto amaituko da» esan eban.

Arginzoniz Aldundi-Buruaren semeak erantzun eutson Artiñano'ri: Liberalak kendu eben aldundia bear zan, guda-ako agintariak bear diran lez, gorpuzak burua bear dauan lez. Erriaren onurea artu zan lenengo legetzat: Salus populi suprema lex.

LETONA'k

# AZKENENGO AIZTOKADA

Idazpurutzat gaur artu dogun au geiegitzak artua izan leiteke gure irakuleen artean, baiña, urren aleginduko geran azalpenak irakurri ondoren, beste era batera ausnartuko dabelakoan gera.

Aurreko mendean eta, bai-ta be oraindiño gure gaztaroan be, eleiz-gizonen bitartez iñon ziran erderakadak eta, ez latinkada gitxi sartu ziran euzkeran, aintziñagotik bertokotuta aurkitzen ziran «eleiza», «Kurutze», «bateoa» «parrokia» beste ainbaten ondoan, esatebaterako Jungoiko «poderoso», «bedeinkatua», «pekataria», «lusifer diabrua», «infernuko demoniñoa» eta abar luze bat. Eta ez sartu bakarrik, orreitariko itz asko sakon sustraitu be bai euskaldunen artean, egunero edo gitxienez igandero entzuten ebezalako gure txadonetan, bertan izaten ziran txonintza, «sermoi» gogorretan eta beste eleizkizun guztietan.

Eleiz-gizon zintzo orreik orretara mintzatzen ba-ziran euron iarrailtzalleokaz, etzan iñor minduteko asmoz. Bai zera! Geienak euzkera sakonagorik ez-ekielako eta, zelan edo alan kistar-bidea irakatsi bear ebelako baiño.

Zorionez azkenengo gizaldian agertu zan iñoz aztuko etzakun Arana-Goiri'tar Sabin eta beste euzko-arlo guztietan lez euzkera arloan be beste iñork baiño kementsuago eta burutsuago, ea azuta edo bastertuta egozan lenagoko itz jator asko berbiztu ta sustraitik euzkeraldutako itz barriak euzkera-arloan sartzan edo, aldi orretarako bertokotuta egozan itzak euzkeralduten iñarduen.

Ordurarte beste iñork emon ez eutsen bultzakada emonaz erri-euzkera txukunei eta batez bere Bizkai'ko euzkalkiari.

Bai-ta aldi ortakuak dira Azkue'tar R. M. ospetsua, Agurre'tar Txomin, Zamarripa, gero-txuago Arrandiaga, Zabala-Ara-

na, Intza napartarra, Etxaniz'tar Nemesi, Zaitegi'tar Jokin, Lekuona'tar Imanol, aitzol gipuzkotarrak eta orain gogoratzen ez geran beste asko.

Orrein jarraitzalle lez eta aspertu barik jarraituaz Aita Onaindia, Lategi tar Bixente, Kerezeta'tar Jagoba, Gaztañaga'tar Josu, Olazar'tar Martin, Gallastegi tar Kauldi ta beste abar luze bat, eleiz-gizon euzkeltzale orrein tar-tean dirala.

Eskerrak eleiz-gizon orrei eta euron antzera dabilzan beste askori, gaur-egun eleiz barrutian euzkera ederra, garbia ta ulerkorra entzuten dogu, beste edozein toki garrantzizkuetan baiño mordilkeri gitxiagokoa.

Eleiz-gizon guztiok etziran Arana-Goiri'tar Sabin'n eretxi-koak, gogai edo ideakoak, baiña, adirazoten emon dabenez, danak dabe maite gure izkuntza, euzkera eta, Euzkalerria.

Orretara izanik, aintzakotzat artu eben sarritan Sabin'ek esan ebana: Ez dagola benetako Euzlerriak euzkera barik edo, euzkera gabeko Euzkadi osorik.

Jakiñaj etziran izan eleiz-gizonak bakarrik euzkera landu, irakatsi ta benetan gorengo maillara bultzatu dabenak, zorionez ainbat izan dira ta dira, baiña, batzuk bakarrik aipatutarren esan lekeguz, Lizardi, Orixe, Kirikiño, Lauaxeta, Euzkadi'ko Urretxin-dorra (Enbeita tar Kepa), Tene emekume adoretua ta abar. Eskerrak aipatu doguzan eta euron inguruan dan beste ainbeste euzkal idazle zintzori, euzkera gaizkatuta aurkitzen zan, giroa argituta ta garbituta, benetako euzkera osotu baterako biderik geiena zuzenduta. Etzan besterik bear, bear dan lez idatziteko azkatasun eta goitik-berako laguntza, geien baten txindi-urrititza zalako ostoporik aundiena euzkeran alde geiago egiten ez bazan.

Larritasun orretan aurkitzen zala gure izkuntza maitegarria, agertu ziran Seneka barriak eta, len egindako guztia ezeztu ta naztu ondoren, sortu eben eurek be zelan idatzi ez dakien «izkuntza» asmatuko «batua», euzkalkirik txukunenak betirako lurperatuko dituzana, ez beren, «batuaren» edertasuna-gaitik, goitik-bera dituzan laguntzakaitik baiño.

Goitik-berako laguntza ori, jakiña! Euzko Aldundien eta Euzko Jaurlaritzagandik datorkiguzanak dira, euzkotar guztion zakeletik urtendakuak, orretara izanik, erri-izkuntza landu aberats bat ondo bildu ta bultzatuteko. Arrokeriz edo obeto esateko poztasunez ludiaren aurrean izkuntza txukun bardingabe bat dogula euzkotarrak adirazoten emoteko.

Ori da baiña gure tamala, iñoiz baiño azkatasun geiago dogunean, iñoiz baiño aginpide geiagoko Euzko Jaurlaritza bat dogunean, Sabin gure Irakasle aundiak sortutako Euzko Alderdi Jeltzalea iñoiz baiño indartsuago dagon aldian.

Ez da ez gure burutaziñoa, or dago ainbesteko ametsa euki dogun Euzko Urrutikuskiña edo Euskal «Telebista» Bizkai'ko Euzkerari azkenengo aitzokada emongo dautsona, berak, traman-kuru orrek orain arte darabilen euzkera-mordoll, gipuzkera mordollua erabilliaz izkuntza nastura egiten diralako entzumen ta ikusmenak.

Asieran esan dogun eleiz-gizonak, apaiz zintzo langilleak, baiña, euzkera landugabeak euren itzaren bitartez erdel itzik asko sartu ba-eben eleiztarren entzumen orretara oituta egolako, ainbat kalte geiago egingo dau Euzko Urrutizuskian, bere entzuleikusleen ikusmena eta entzumena ortxe ikuskizun eta entzukizun ortaxe dagozalako beren aurrean.

ALTUNA'tar Josu

# POZTASUNAREN BILLA

Esan leike eldu dala mundura poztasunaren illun nabarra ta mingostasunaren garaikundea.

Izpar baltzak alde guztietatik, goiztik gaberañi garrastasunaren enbata ta burrundadea.

Ori, mundu guztian bai ta geure geurean be, gure euskal erri maitean.

\* \* \*

Erri au alaia izan da, erri kantaria ta irrintzilaria, baiña orain bekoki illun geiegi ikusten da bastarretan.

Jarri zaiteze kale ertzean, ara ta ona ainbat gizon ta andra igaroten diran leku baten, eta, bakarrean ba'doaz, ikusiko dozuz lurrera begira, begirakun tamalagaz geien geienak.

Politika-arloan ba'dabiz, dana da deadarra, itz gogorra, biraoen zarata dardaragillea

Alkar izketa baketsu bat egiteko, ez dira gauza. Asko eta asko ikara baten bizi dira.

Or dozue lanbagesunaren migotxa, ezkontza ausiteak mara-mara, batak besteaganako begirakun okerra, sendi geienetan ozpiña...

\* \* \*

Orretarako egiñak ez gara zorioneko izateko baiño.

Daukagun larritasun au geituaz doa, indar aundia artu dau.

Bide orretatik jarraitu ezkerre gure erri biotzekoak ezingo dau iraun, ez erri lez eta, gutxiago, kristau lez.

Egia da gauza larri asko dirala munduan jazokun tamalgarri asko, baiña gure eginbearra danok alkar turrik erriari, aurrera jarrai dagian bultza egitea da.

Danok bakoitza bere aldetik eta bere altasunean adoretu jarraitu bear dogu; biotzeko zaurietan olio pizka bat ipiñi gaure maitasunagaz; itxaropenik ez

dagon lekuan itxaropena ipiñi; ozpiña dagoan lekuan, gozoki pizka bat esarri.

\* \* \*

Euskaldunok baditugu soin sendoa ta gogo gartsua, ta danon soin ta gogoak alkartzen ba'doguz ez dago iñundik bere eziñik. Alkar artuta ezarri eskuak lanari, kikildu baga, bildurrik baga ta epelkeririk baga, ekin eta jarrai benetako poztasunaren billa.

Oraigoan emen ia ia ez dogu beste poztasunik lizunkeriaren poztasuna, drogaren poztasuna, alkar ilteak garaille urtetan ba'dogu, emoten dauan poztasuna baiño.

Ez dogu astirik galdu bear orpoz orpo, ukondo ukondo danok batean lan egin bearrean gagoz, gure ekiteagaz (Jaunren lagutasuna beti eukiko dogu) Euskal erri zoriontsu bar lortuko dogu.

Asarreak itxi alde batera, politikeriak bardin. Danok ez gara pentzakera bardiñekoak baiña Euskal erriari ondo jatorkozan gauzetan bat egin bear dogu.

Erri alai bat egiteko, asarreak urrindu ta eztarri danean soiñu gozoa, ezpan danetan irribarretpozgarria, begi guztietan argitasun bizia ipiñi bear doguz.

\* \* \*

Guzti ori lortuteko ez dago, gauza obarik kristautasuna biztu ta benetako alkar maitasuna danetan erabiltea baiño.

Itxartuko ete gara? Geure barrua asterturik, egiaren jarraitzaille biurtuko ete gara?

Itxaropen aundia daukat. Ilezkorra da gure erria. Poztasunaren illun nabarra biurtu bear poztasunaren goiz-argi ARREN ARREN!!!!

GALLASTEI Klaudio

## POZTU BETI

*Ez ez etorri beti negarrez,  
ez ez etorri tamalez;  
badaukagu ba zergaz alaitu  
bizi gaitezaz poz pozez.*

*Or doguz ume erruge txikik,  
aingarutxuen usaiñez;  
euren begiak zeru izpillu,  
beti argi atsegiñez.*

*Ba-dira ortik neska liraiñak,  
garbitasunez beteak;  
eurak dagozan alde guztitan,  
lora usaiñez beteak.*

*Morrozko gogor indar beteak,  
enda garbiren semeak;  
euren arpegin agiri danez,  
garbitasunez beteak*

*Gizon zabalak arpegi tximur,  
lanaren lanez zartuak;  
baiña ondaruak biotz zintzoko,  
gaztediren erduak.*

*Gure andreak andre zabalak,  
irribarretsu bigunak;  
sagar umauren antzeko dira,  
usain eztitsuz beteak.*

*Baso sakonak, orriz beteak,  
txorin abestiz ederrak;  
gerizpe eder uda beroan,  
bidaztien atsedanak*

*Zelai baratzak lorez beteak,  
inguru dana usaiñez;  
beteten dabe zoriz guztiro,  
gure surrak atsegiñez.*

*Errekatxuak pilpil uretan,  
soiñu gozatsu egiñez;  
gure ointxoak bertan sarturik,  
udan bete atsegiñez.*

GALLASTEGIK



# OÑARRIAK



## «BERMEO»

### 1983'ko LITERATUR LEIAKETA

BERMEOKO BATZOKIAREN KULTUR  
BATZORDEAK ERATUTA,  
TA BERMEOKO UDALAREN  
BABESEAN

1. Gura daben idazle guztiek artu daikee parte, edozein jatorrikoak naiz edonongoak izan arren.
  2. Leiaketa onetara aurkeztutako lanak euskeraz idatziak izan bearko dabe. Bizkaiko euskeraz ain zuzen bere. Gainera, orijinalak eta argitara emon bakoak izan bearko dabe.
  3. Gaia, BERMEO izan bearko da, au da, Bermeori buruz idatzitako edozein eratako idazlanak, bai ipuiñak, kontaketak (jazotakoak edo asmatutakoak), etnografi edo edesti lanak eta abar.
  4. Lan oneetan, literatur aldeko balioa neurtuko da bakarrik, eta ez euki leukeen beste eratako garrantzia edo balioa.
  5. Lanon luzera, gitxienez bost orrialdetakoa izan bearko da, tarteune bigaz eta alde batetik bakarrik mekanografiaturik.
  6. Lanak bialtzeko epea, 1983. Jorraillaren 30'ean amaitzen da. Bialtzea ondorengo Zuzenbide onetara egin bearko da.
- Bermeoko Batzokiaren  
Kultur Batzordea  
Askatasun Bidea kalea -  
BERMEO**

Lanaren amaieran, lema bat jarri bear da. Eta lanagaz batera, beste kartazal bat bialdu bearko da itxita. Kartazal orren kanpoaldean, lema berori jarriko da ta barruan egillearen izen abizenak, bizilekua, ta izenpea. 18 urtetik berakoek kartazalean ipini bearko dabe zenbat urte dauken.

7. Bermeoko Batzokiaren Kultur Batzordeak berak izendatuko dau epai-maia, eta onek, Orrillaren (maiatzaren) 31 baño ariñago agertuko dau ebatzia.
8. Leiaketan izango diran sariak oneexek dira:  
Lenengo Saria 50.000,— pesetakoa  
Bigarrena 20.000,— pesetakoa  
Eta 10.000,— pesetako iru aipamen urrengoentzat.  
Sarituetariko bat, 18 urtetik berako bermeotar bat izango da.
9. Lanakaz, Bermeoko Udala jaubetuko da.
10. Sariak emoten diranetik urte bete garrenerarte, Bermeoko Udalak argitaratuko ez baleuz lanak, eratzalleak, au da, Bermeoko Batzokiaren Kultur Batzordeak leuke eskubidea lanok argitaratzeko.
11. Oñarriotan eta leiaketa bitartean izan daitekezan goraberetan, Bermeoko Batzokiaren Kultur Batzordeak eukiko dau azken itza.
12. Leiaketan parte artu ezker, derriorrez onartu bearrekoak dira artegaroko oñarriok.

# ASMAKIZUNA

*Uxuak aidean doaz  
sapelatzak diñotse:  
Uxotxu neureak  
zenbat zarie?  
Arek erantzun dautse:  
guregaz eta orrenbestez,  
erdiak eta laurdenez,  
eta zuregaz, Sapelatz,  
egiten dogu eun bete.  
Zenbat ziran?*

**ERANTZUNA:** 36 uso dira.

**Ona nolán\*** 36, eta orrenbeste 36;  
erdiak, 18; laurde-  
nak, 9 eta Sapelatz,  
1.

$$36 + 36 + 18 + 9 + 1 = 100.$$

## 31.<sup>a</sup> ERANTZUNA

1	U	R	U	T	I	R	V	D	I	Z	K	I		G	U
2	R	X	K				R			O	X	T		R	
3	U	B	D	I	L	D	U		G	A	I	X	O	T	U
4	T					T	Z	A	Z	X	A			T	
5	I	Z	U	C	A	R	I		L		I	R	A	D	I
6	K	X	R			D			D		G	O			D
7	U	R	U	T	I	R	A	T	U		O	P	A	I	A
8	S	X	T	X	R		T	A			I			Z	
9	K	E	A	T	U		Z	I	A	R		D		A	K
10	I		R						D			E			I
11			G	A	B	E	U	K	A	T	Z		N	U	N
12	L		I	X	A	X	K	X	B		A		O	X	T
13	E	U	K	I	T	Z	A	L	E		I	K	A	T	Z
14	I	X	I	X	O	X	L		G		L				A
15	O	I	N	B	I	D	E		I	K	E	R	T	U	

EZKERRETIK ESKUIRA

1. Abuso. Ser, estar.
2. Sueño (acto de dormir).
3. Grasiento.
4. Cebada. Agua.
6. Donde quiera. Cien.
7. Preocupado. Demasiado.
9. Reloj.
10. Seco, adusto. Cantero.
11. Prueba.
12. Verde (no maduro, no seco).
13. Huida. Camarón. Pecado.
14. Partir, dividir. Helecho.
15. y., Alegrar.

GOITIK BERA

1. Fatuidad. Camino, ruta.
2. Sufijo de participio.

*Gofi*

# UGAZARIOA TA IDIA

Uretza-ertzean ugazarioa ta bere umeak.  
Alboko landan idi aundia bedarra jaten.

Ugazario-ameak umeai:

—Ba-naz ni idi orren bestean aundia?

Eta umeak ameari:

—Ez, idia askoz aundiagoa da.

Ugazarioak barriro bere gorputza putzez arrotuta:

—Eta orain?


Umeak erantzun:

—Ez, Oraindiño idia aundiagoa da.

Eta amek ori sarritan egin eban, eta puztu ta puztu, lertu egin  
zan, errukarria, bere umeen aurrean.

Aundien beste aundia izan gura ba'dozu, ekiñaren ekiñak bizitzan  
lertuko zaitu.

32.<sup>a</sup>



*Gofi*

3. Pasar. Castigo.
4. Luz.
5. Fatuo. A ver si.
6. Ennegrecer.
7. Televisión.
8. Llamar.
9. Preguntado. Adelantamiento.
11. Asamblea, reunión. Morir.
12. Ciego. Arriba, encima.
13. Lugar de aguas termales. Si.
14. Poder.
15. De vez en cuando. Mejorar.

OARRA: Gurtz-izki au Sabindar idaz-  
keran dago rr, ll ta abar.

# BENETAKO ABERTZALEAK?

*«Erriren batek bere izkerea (izkuntza) galtzen ba dau, beste baten otseiña egin dalako da. Erri otsein baten semea izan gura dozu? Aberririk ez tozu? Ba'dozu Aberria... zergaitik eztozu maitatzen zeure Aberriaren izkuntza? Zeure Aberriaren izkuntza ezpa-dozu maitatzen, eztozu maitatzen Aberria bez» (Sabin).*

Dakigunez Abertzale itz edo berbeak ABERRI-ZALE esan gura dau. Alan ba, zelako Abertzaleak, zelako ABERRI-ZALEAK dira:

—Euzkadi'n jaiio ta Euzkadi'n bizi, ta Aberriaren izkuntza ikasi ez daben euzkotarrak?

—Euren artean erderaz egiten daben euskaldunak?

—Euren seme-alabei euskera irakasteko arduratu ez diran euskaldun gurasoak?

—40 urtean euzkotarren etsaiak izan diran izparringi ta aldizkariak erosi ta irakurten dabezenak?

—Berbaldi ta batzarretan baten batek ez ba'daki euskera, «Mesedez, egin erderaz danok ulertzeko» esaten daben euskaldunak?

—Erbesteratu batzuk erbestetik onantz-aldian arro-arro ta ao bete-beteen «prantzes edo ingeles» (prantzera edo englandera) sei illabeteen ikasi ebela esaten dabenak, baiña Aberriaren izkuntza ikasteko gai ez ziranak, arduratu ta alegindu ez ziralako?

—Euskaldun errietako agintariak, Udaleko Batzarrak erderaz egin eta erriko agiri, iragarki ta oarrak erderaz egiten dabezenak?

—Aberriaren izkuntza ikasteko arduratu ta alegindu ez diran Euzko Erakundeetako agintari, ordezkari ta arduradunak?

—Bizkai'ko ikastola, ikastetxe ta ikastegietan alperreko H ta erderakadaz josita dagon «el batua» deritxon izkuntza sartu ta BIZKAIERA, bizkaitarren izkuntza maitea —gure betiko ta egiazko euskera bakar-bakarra— baztatu gura dabenak?

—Euskaltzain «el batua»-zale amorratu batzuk, erri-euskera, euskera bizia, batez be BIZKAIERA, ainbat lenen ilda ikusita gura leukienak?

Asko gara benetako Abertzaleak garala pentsatzen dogunok, baiña ikusten dozuenez benetako abertzalea izatea ez da ain erreza.

Sabin'ek esan ebanez «gure Aberriaren izkuntza ez ba'dogu maitatzen, ez dogu maitatzen Aberria be», ba gure erriaren arimea euskerea da; gure izatea, gure nortasuna euskeran daukagu; euskera barik ez dago euskaldunik, euskera barik ez dago Euskalerririk, euskera barik ez gara ezer.

Orregaitik BENETAKO ABERTZALEAK izateko, gure Aberriaren izkuntza ikasten eta erabilten alegindu bear gara, au dalako bide bakarra Aberriaren askatasuna lortzeko.

BILBAO'tar JON E.



EUSKERAZALEAK

**ZER**

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**



**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia